

## INGURUKO HEGAZTIAK

*Inguruko hegaztiak* proiektua Gauegiz- Arteagako "Montorre" eta Muxikako " Urretxindorra " ikastetxeko irakasle eta ikasleek egindako lana da. Lana " Elaia Bird Migration Centre " deritzonak koordinatu du eta udalerrri horietako bizilagun guztien partaidetzara irekita dago.

*Inguruko hegaztiak* proiektuaren helburuak ez dira hegaztiak ezagutzera eta ikertzera mugatzen; hain zuzen ere, helburuak hauek dira:

- Diziplina anitzeko eta zeharkako ikaskuntza garatzea, eskola-curriculumaren gainerako ikasgaiei dagokienez (matematika, geografia, hizkuntzak, informatika, plastika).
- Taldean lan egiten ikastea, erantzukizunak hartuz, helburuak finkatuz eta emaitzak ikusiz.
- Eskola-prozesuan inplikaturiko eragile guztiek (irakasleak, ikasleak eta gurasoak ) hurbileko natura-ingurunea eta, zeharka, hona datozen hegaztien jatorrizko lekuak orokorrean ezagutzea.
- Hegaztien jarraipena egitea, horien aldi biologiko guztietan: negutea, ugalketa-garaia eta migrazioa. Horretarako, euren biologiari buruzko landa-datu erabilgarriak lortu behar dira.
- Esperientziak Urdaibaiko beste ikastetxe batzuekin partekatzea eta konparatzea.
- Giza jarduerak espezieen biziraupenean eta biodibertsitatearen kontserbazioan duten inplikazioa ezagutzea.

*Inguruko hegaztiak* proiektua ez da jarduera isolatua, iraunkortasunez garatzen baita ikasturte osoan; horren barruan, hegaztien bizitzako 3 aldi hartzen dira kontuan: negutea, ugalketa-garaia eta migrazioa.

Bi ikastetxeen inguruan jan-ontziak instalatuko dira, neguan hegazti txikien presentzia iraunkorra izateko. Jan-ontzietatik metro batzuk harago, habiak jarriko dira, amilotxak eta kaskabeltzak udaberrian ugaltzeko; horrela, kumeei eraztunak jarri eta balio handiko informazioa lortuko dugu.

Ondoren, ikastetxeko ikasgela batetik, ikasleek hegaztiak ikusi eta horien jarraipena egingo dute eta jarraipenari dagozkion landa-fitxak beteko dituzte. Aldi berean, teknologia berriak erabiliz, ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, bildutako informazioa prozesatu eta materialak landuko dituzte (posterrak, argazkiak...) eta ikastetxean erakusgai jarriko dituzte.